

Entitate parte-hartzailearen bezeroen baloreen babesa

Kutxabankek, 909/2014 Erregelamenduaren (EB) 38. artikulua bidez, BEZEROari jakinarazten dio 6/2023-ko martxoaren 17ko, Baloreen Merkatukoa eta Inbertsio Zerbitzuetakoa Legean (aurrerantzean "LMVSI") araututako maila bikoitzeko erregistro sistemaren esparruan, BEZEROAK hurrengo bereizketa mailen artean aukeratu ahal izango duela:

1. Bereizketa mailak

- Kontu orokorra: kontu hauetan Kutxabankek, entitate parte-hartzaile gisa, hirugarrenen izenean dituen xehetasun-erregistroetako kontuetan erregistratuta dituen baloreen saldo globala islatzen da.
- Banakako kontua: kontu hauetan kontu hori erregistro zentralean eramatea adostu duen Kutxabankeko BEZEROA titular dituzten baloreen saldoa islatzen da. Kutxabank, erregistro zentralean irekitzea eskatzen duen entitate parte-hartzaile gisa, izango da kontu horren kudeaketaren arduraduna, eta BEZEROAREKIN adostu beharko ditu kontu hartan bildutako baloreak erabiltzeko terminoak eta baldintzak.

2. Maila bakoitzaren kostuen deskribapena

BEZEROAK jarraian zehazten diren kostuak bere gain hartuko ditu baloreen kontua mantentzeko:

Erregistro zentralean:

- Kontu orokorra: ez dago kosturik bezeroarentzat.
- Banakako kontua: Hileko 150€ kontu bakoitzeko. Une horretan indarrean dagoen BEZ-a gehituko zaio. Zenbateko hori baloreen kontratuari lotutako aurrezte-kontuan zordunduko da.

Xehetasun-erregistroan:

Ez dago kosturik bezeroarentzat.

3. Inplikazio juridiko nagusiak

LMSVI-ak legeko titular gisa onartzen du Iberclearren erregistroetan edo Kutxabanken erregistroetan hala erregistratuta dagoen oro. Beraz, kontuen bereizketa aukerak ez du eraginik erregistratutako baloreen legeko izaeran edo titularraren posizioan Kutxabank igorlearekiko edo hirugarrenetikiko.

Hauxe dio LMVSI-ren 13.1 artikulua horren inguruan:

"Kontabilitate-erregistroko idazpenetan edo erregistro banatuen teknologian oinarritutako sisteman zilegitasuna duen pertsona titular legitimotzat joko da eta, ondorioz, entitate jaulkitzaileari eskatu ahal izango dio bere alde egin ditzala balore negoziagarriak ematen dizkion prestazioak. Legitimatutako pertsona gisa ager daiteke azken onuraduna edo lege honen 126. artikulua a) letran aurreikusitako zerbitzu osagarria emateko baimenduta dagoen erakunde bat, betiere bezeroen kontura jarduten duela jasota geratzen bada."

Eskubide hauek eraginkorrak izan daitezten, aurretik erregistro sistemari dagokion kontuan eskubidea onartu behar zaio, LMVSI horren 13.3 artikuluan biltzen den bezala:

"Titularrari dagozkion eskubideak transmititu eta erabili ahal izateko, aurretik haren aldeko erregistroa beharko da"

Garrantzitsua da, halaber, fede oneko eskuratzzailearen alde LMVSI-aren 11. artikulua 3. atalean emandako babesa nabarmentzea:

"Kontuko idatzoharren bidez edo banatutako erregistroen teknologian oinarritutako sistemen bidez ordezkatutako balore negoziagarriak kostu bidez eskuratzen dituen hirugarrenak, baldin eta pertsona hori, kontabilitate-erregistroko idazpenen edo banatutako erregistroen teknologian oinarritutako sistemaren

arabera, balore horiek eskualdatzeko legitimatuta badago, ez du aldarrikapenik egin beharko, baldin eta eskuratze-unean fede txarrez edo erru larriz jokatu ez badu.”

4. Kaudimengabezia arloan aplikatzeko araudia

Kaudimengabezia arloan, 41/1999-ko azaroaren 12-ko Legea aplikatuko da, ordaintzeko sistemen eta baloreen likidazioaren ingurukoa, (98/26CE Zuzentarauaren transposizioa), eta baita 22/2003-ko uztailaren 9-ko Lege Konkurtsala, eta Baloreen Merkatuaren Legea ere, 15 eta 92 artikuluetan bildutakoa, eta unean une indarrean den araudia.

5. Emandako informazioa laburbiltzen duen koadroa

Kontu mota Erregistro Zentralean	38 betekizuna CSDR	Kostua bezeroar entzat	Lege inplikazioak	Entitate parte- hartailearen egoera konkurtsala	Araudi- errefer- entziak
Hirugarrenen Kontu Orokorra	Kontu orokorretan Bereizia - dagokion xehapena behar du Norbolsaren xehetasunen erregistroetan	0,00 €	Aitortzen da Entitate parte- hartailearen kargurako xehetasun- erregistroetan erregistratzearen ondoriozko titulartasuna	Titularrak lekuz aldatzeko eskubidea. Defizita badago: Hirugarrenen Kontu Orokorretan	9 , 15 eta 92 LMVSI 34 814/2023 ED
Hirugarrene n Banakako Kontua	Banakako kontuan bereizketa	150,00€, gehi indarrean den BEZa	Titulartasuna onartzen da	Titularrak lekuz aldatzeko eskubidea	9 , 15 eta 92 LMVSI 34 814/2023 ED

Halaber, BEZEROAK bere eskura izango du baloreen babesari buruzko informazio guztia hurrengo web orrian:
kutxabank.es